

KOLABORAZIOAK

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «Txillardegui» / Idazlea

Aritxulegitik Busotera

MARTXOAREN 12an ni ere, beste anitz abertzale bezala, Aritxulegin izan nintzen.

Haize fina kaxko hartan, alajainkoa! Baina bihotzak bero.

Iaz beste bost gudari hilik. Eta beste bost zuhaiska aldatu zituzten. Ximplea izan zen zerimonia, hunki-garria. Mazelako zahaitzen artetik ibili ginen pasean bisitariok. Izen batzuk emango nituzke pozik. Baina denek dena eman zuten zero, ez dut inorenik aipatuko.

Gaztetasun beteaz egagutu eta galdu genituen aberkideen oroitza-penak pilatu ziren elkartegainka gudan. Xafila apal haietan irakurtzen direnak, urrezko letratan nahi genituzke. Zenbait aldiz, ondikotz, geuri ere ezezagun gertatzen.

Nazio-askatasunaren alde eroritako borrokaideen basotxo hazkor hori Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan bertan kokatzea, Telesforo Montzoni bururatu zitzaion. Eta gerotik «gurea» (?) omen den agintaritzatik laido eta karkaxa besterik jasotzen ez duten aberkide apart horiek, urtean behin bederen hartzen dute abertzaleen gorazarrea.

Gain urrunsko haietan bederen, haize-balek, lagunak eta senitarte-koen malenkonia etsiak, eta poesiak ez bestek itsats dezaketen urrin giro berezia gure barrena astintzen duen- larrik.

Gezurra badirudi ere, hamalau urte joan dira Telesforo itzali zitzaigun gerotik. Kalean eta baserrian gauzaturik ikusi eta solastatu nahi izan zuten Euskal Herri Askatua, ez zuten azkenean berak ere ezagutu.

Ezta guk geuk ere, hamalau urte pasa ondorengo geure kinka hits honetan. Pertsonen eta herrien zikloak ez baitira batera gertatzen.

Urte txarrak jasan zituen Telesforok; eta deserrialdi garratza eta luzea. 1936ko gerratea eta beronen ondorioak beren larruan jasan zituzten abertzale guztiek bezala. Eta ez abertzaleek bakarrik, denok ongi dakigunez.

Telesforok, hala ere, ez zuen ezagutu «Euzkadi»-ren izenean, eta berak zinez errespetatzen zuen Alderdiarenean, hozitu eta sendotu den ustelkeria hau.

Hain zuzen ere, eta hein batean bederen, okerrera ezagutu gabe joan zitzaigula pentsa daiteke.

1981ko martxoan, esperantza bazez abertzaleentzat. Zetorkiguna

soma zitekeen, bai. Lendacariak, adibidez (Leizaola ez gara) orduantzu bota zuen esaldi hilezkor hura: «*La reunificación de Euzkadi Norte y Euzkadi Sur es un objetivo netamente hitleriano*».

Eta orpoz orpo zerraikion dizipulu harrigarriak, orduantzu bota zuen beste esaldi hilezkor hura: «*Con independencia los vascos tendremos que comer berza, berza y más berza*».

Baina zetorkiguna sinetsi nahi ez eta, ez-entzuna egin genien zantzu ezin nabarmenago horiei.

Orain pairatzen dugun Telesbista anti-abertzalea, adibidez, Telesforo hiltzerakoan sortu baitzen, eta euskara hutsez abiatu... 1982ko uztailaren 19ko Dekretuan hau irakur baitzitekeen: «... *creada para el fomento y desarrollo del euskera*» (3.h. puntuan).

Telesforok ez zituen Moreno, Calleja, eta gainerako lider autonomi-

Aritxulegi eta Busot bihotzetan ongi iltzaturik, Auto-Determinazioaren bila abertzale guztiok bat

koak ezagutu. Hil arte «gure ikastolan Eustakio Mendizabal, Sasetaren hurrena» goraiatuko zela, eta kantuz ohoratuko, eman zuen segurutzat. Baina Arzalluzen eskutik nagusitu zaizkigun Buésaren kastako falangistek, besterik zeukaten erraizetan.

«*Cada país tiene su cruz*» —esan omen zuen behin Roldanen eta Veraren alderdikidea den Chiquito Benegasek— *y la nuestra es Telesforo Montzón*. Eta hortxe dago jauntxo hori, tinko, jeltkideekin bat eginik. Eta hau ere ez zuen Telesforok ezagutu.

Sofritu egin zuen, gaisotu ere egin zuen tristuraz eta ezintasunez; frankismoa erortzean, PNVaren erruaz, Euskal Herriak zituen aukerak alferrik galduko zirela ulertzean.

Telesforo «garaiz» hil zen. Lezo Urreztieta «jagi-jagi»-tarra, handik aste gutxitara, «garaiz» hil zen bezalaxe.



PUNTO FINAL

Montxo GOIKOETXEA

Teléfono móvil

BARCELONA? (...) ¿Es la Generalitat? (...) ¿Puedo hablar con el señor Pujol? (...) ¿Don Jordi? (...) Oiga, que pese a que es usted un conservador deseo felicitarle por la política lingüística que está llevando.

— ¿Usted no es conservador?

— No: yo soy un vasco radical, o sea de los que defendemos las raíces, que de ahí viene la palabra «radical». Buena tiene que ser la normalización lingüística que está usted aplicando pues cabrea sobremanera a Madrid, tanto a los del PSOE como a los del PP. Por cierto que en Euskal Herria nos quedamos boquiabiertos cuando vemos en la tele a los socialistas y a los «pe-

peros» catalanes expresándose también en catalán.

— ¿Ahí no lo hacen en euskera?

— Calle, calle. No sólo no lo utilizan sino que además se oponen a que lo aprendan los demás. Nuestra lengua está en una situación tan penosa que hay quien teme por su pervivencia. Estamos tratando de re-

cuperarla pero la empresa se revela ardua. A diferencia de ustedes, la burguesía vasca renegó del euskera porque consideraba más útil y elegante expresarse en castellano. En noviembre estuve en Barcelona y da envidia: todo el mundo hablando catalán... o comprendiéndolo.

— Hay que señalar que la nuestra es una lengua latina. Como el español, dicho sea de paso.

Gerotik ezagutu baitugu espainiarkeria «gure» instituzioetan gailen, lotsagaldu, harroputz; eta abertzaleetara herabe. Gerotik tokatu baitzaigu GALEn gorabehera lotsagarriak apur-apurka ezagutzea, eta Madrilen «gure» (?) izenean mintzo diren or leialek «ikerketa-batzorde» orori ezezko borobila ematea.

Gerotik gertatu baita gudari preso sakabanatzeari «gure» (?) ordezkari ustek, isiltzeaz zein alde bozkatzeaz. Madrilen euzko bedekiazioa ematea.

«*Condenamos la violencia venga de donde venga*» esan izan digute. Baina bortizkeria odoltsua gudari abertzaleen kontrako gerra zikinean erabili bada, «ixo» eta «silencio» agintzen da, batera batzokietan eta «*Casa del Pueblo*»-etan eta «demo krazia» isildu egiten da.

«*Hay que garantizar la gobernabilidad de España*» errepikatzen dute buruquideek. Eta Roldanen Verak, GALEk berak, PNVaren «*venta*» lortzen dute (galeriarako espantatu batzuk gorabehera).

Zenbait aldiz, halere, oraingoan Zabala eta Lasaren kaso ikaragarriaren bezala, PSOEren gidaritzapean Espainiak gudarien kontra tortura eta heriotza erabili dituela agertzen da.

Baina PNV-PSOE ezkontzak tinko dirau.

Espainiar fazismo pean lau hamarkada jasanda, urte mordoska bat daramagu orain Hegoaldeko espainiar «demokraten» hanka pean. Eta betirako (agian!) berrikasi dugu lezioa: Espainiatik urrunago eta hobe, Espainiatik at, ala hil.

Separatistak gara, bai. Nola ez? Inoiz baino zinkiago. Espainiaz eta espainiarkeiez leporaino gaude. Eta sekula baino irmokiago eskatzen dugu burujabetza, independentzia. Esloveniak edo Lituaniak gure begien aurrean eskuratutako duten berbera.

Aritxulegi eta Busot bihotzetan ongi iltzaturik, Auto-Determinazioaren bila abertzale guztiok bat. Horra hor, nik uste, egun ezin latzago hauetan, gudariek ezkuz esku, inolako adjetibo edo erasunik gabe, elkarbidetzat hartu behar dugun helburua.

Telesforok, hau segurtasun osoaz esan dezaket, hartu zuen berbera.

Eta Galistanen «*cómodo*» senditzen direnei, bejondaiela!

— Ya. Y el euskera parece indiscrutable. Pero lo más grave es que muchos que lo saben no lo hablan. Le voy a confesar algo terrible: usted puede atravesar cualquier día Bilbao de punta a punta y no oír ni una palabra en vasco. Incluso en San Sebastián le puede ocurrir lo mismo. Depende de las zonas. ¿Qué me dice?

— Que sí, que es terrible. ¿Y los niños, no lo aprenden?

— Muchos padres tampoco les dejan. Hay que ser burros, ¿no?

— Desde luego. Dígame algo en euskera, por lo menos.

— Pues agur, ya que he terminado.

— Bueno. Pues adieu...